

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Abaltzisketa



Aurkibidea

Udalerria: Abaltzisketa

Sarrera



Tolosaldeko udalerria. Txindoki mendiaren magalean kokatuta dago, Aralar mendilerroan, Herrira Alegia eta Orendainetik igarotzen den errepide batetik edo Amezketa eta Zaldibiatik sartzen da.

Abaltzisketarrei "Txalburuak" ezizenez deitzen zaie.

Aralarko Parke Naturalaren parte da herriko hegoaldea. Landako herria da, nekazal eta abeltzaintza esplotazio ugari daude. Hizkeraz ere eskualdeko gainontzeko herriekin parekotasun handia dauka.

- **Biztanleak:** 321
- **Euskaldunak:** %99,22

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **13**
- Zintak: **12**
- Pasarteak: **62**
- Transkribatutakoak: **9**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **62**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Martina Agirre Zuriarrain (1930)



1930ean jaio zen Abaltzisketako Sarobebekoa baserrian. Aita Bedaion hazia eta ama Sarobe bertakoa zituen, eta bderatzi anai-arrebako familia zuen. Abaltzisketako eskolan bertan ikasi zuen. Usurbilen bizitzen egon zen denboraldi labur batez, eta etxera bueltatzean Alegian hasi zen neskame lanetan. Bizimodu gogorra pasa izan du etxean eta gosea zer den ezagututakoa da. 17 urterekin Ordiziako Olano tabernan hasi zen zerbitzari eta hantxe ezagutu zuen gero senarra izango zuena, Iñaki Ormazabal. Elkarrizketa elkarrekin egin zitzaizen biei.

Ana Artola Etxeberria (1923-2018)



Abaltzisketako Lizerdiaundi erreka ondoko baserrian jaio zen. Gaztetan eutera aldera egin zuen, ordea, eta Larraitx aldeko Altunetxe baserrira ezkondu zen. Abaltzisketan bizi izan da beti, baserritik eta baserrian.

Ramon Etxeberria Altuna (1927)



Abaltzisketako Urkolatxiki baserrian jaioa. Aita jaiotetxe berekoa zuen, eta ama Abaltzisketako Arandi baserrikoa. Hamabi senide ziren etxean, eta askok neskame edo morroi joan behar izan zuten. Hala suertatu zitzaion Ramoni ere, eta hogeita lau urterekin Arratera joan zen morroi, tabernara. Han bi urte eta erdi egin zituen, eta etxera itzuli zen. Geroztik, beti bizi izan da Abaltzisketan.

Teresa Etxeberria Altuna (1933)



Abaltzisketako Urkola Txiki baserrian jaioa. Aita jaiotetxe berekoa zuen, eta ama Abaltzisketako Arandi baserrikoa. Hamabi senide ziren etxean, eta askok neskame edo morroi joan behar izan zuten. Teresa hamaikagarrena izanik ere, berari ere neskame joatea suertatu zitzaion. Donostiako Grosen aritu zen lehenik, eta Izpura hotelean ondoren. Hiru urte egin zituen neskametzan.

Juan Bautista Etxeberria Elizegi (1935)



Abaltzisketako Etxeberrienea baserrian jaioa. Aita jaiotetxekoa zuen, eta ama ere Abaltzisketakoa. Lau senidetan bigarrena zen Juan Bautista. Anaia zuen zaharragoa. Hari behiak gustatzen zitzaizkion, eta berari, berriz, ardiak. Hala, hamabi urte zituenerako mendiko txabolan artzain lanetan hasi zen. Hala aritu zen, artzain, erretiroa hartu arte.

Maria Jesus Etxeberria Elizegi (1941)



Abaltzisketako Etxeberrienea baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama, izatez Alkizan jaioa, baina Abaltzisketako Aldalde baserrian hezia. Lau senideetan gazteena, Abaltzisketan bertan jostun batekin josten ikasten aritu zen gaztetan. Larraitx aldera ere joateko ohitura zuen, igande arratsaldetan. Gasastegi baserrira ezkondu zen, eta han bizi izan da geroztik.

Ramon Garmendia Altuna (1930)



Abaltzisketako Estanga Goena baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama ere abaltzisketarra zen, Arandi baserrikoa. Txikitatik gustatu zitzaizkion idiak eta segan aritzea. Aitak, herriko alkate izanak, erdaraz ez jakiteagatik beti arazoak izan zituela-eta, semeei hizkuntza hura ikasteko aukera eman nahi izan zien. Hala, anaia zaharragoak egin zuen bezala, Aguraingo baserri batera joan zen morroi Ramon ere, hamalau urte zituela. Lehendik idi zalea baldin bazen, Agurainen ez zitzaion zaletasun hura areagotu besterik egin. Hamabost hilabete pasatu zituen bertan, eta gehiago ere pasatuko zituen beragatik izan balitz, baina anaia soldadu eraman zutela-eta, haren lekua hartzea egokitu zitzaion. Osaba batekin artzain ibiltzen zen hura, eta Ramonek ere bi negu pasatu zituen Zarautzen, artzain lanetan. Gero etxera itzuli, ezkondu, eta berak hartu zuen etxeko martxa, segarako eta idi-zaintzarako zuen zaletasuna lanerako fin erabiliz.

Santio Garmendia Garmendia (1914-2010)



Abaltzisketako Ipintza Barrena baserrian jaioa. Ama jaiotetxe berekoa zuen, eta aita, berriz, Abaltzisketako Zalbide baserrikoa. Zazpi senidetan zaharrena zen Santio. Hogeita bi urte zituen 1936an, eta soldadu joateko beldurrez erreketek sartu ziren herriko lau lagun. Ondoren, ordea, han boluntario gisa egotea egoki iruditu ez, eta soldadu eraman zitzaten eskatu zuten. Hala ibili ziren hiru urtez: Gasteiz hartu, eta Andaluzia aldera eraman zituzten. Han zeudela bukatu zen gerra. Berriz Abaltzisketara itzuli, lanean segi, eta ezkondu egin zen.

Maria Andresa Gaztañaga Dorronsoro (1921)



Zaldibiako "Suegi" baserrian jaioa. Hamar senideko familia zen berea eta bera zen gazteena. Senide gehienak behin koskortuta neskame eta morroi joan zitzaizkion etxetik, eta bera gelditu zen etxean gurasoei laguntzen, [Joakin Zubeldia Zabala](#)rekin ezkondu zen arte. Handik aurrera ere, baserrian eta baserritik bizi izan zen, Abaltzisketan.

Maximo Lopetedi Zubeldia (1930)



Abaltzisketako Otamendi Barrena baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama Otamendi Bitartekoa. Abaltzisketan bizi izan da beti, baina soldaduska garaian Irun aldean ibili zen, igeltsero lanetan. Handik bueltan baserriko lanari lotu zitzaion gogoz. Ez omen zuen parrandarako joerarik. Fabrikarako ere gogorik ez omen zuen berak. Bere adinekorik ez zen hasi fabrikan lanean, baina bera baino gazteagoko belaunaldiko jende asko hasi omen zen. Berriz jaioko balitz, berriz ere baserrian egingo omen luke lan.

Bartolome Murua Gorostidi (1932-2017)



Abaltzisketako Gasastegi baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama Abaltzisketako Olano baserrikoa. Herriko eskolan ibili ondoren, gurasoek Tolosako eskolapioetara bidali zuten ikastera. Handik itzuli zenean, baserriko lanei ekin zien buru-belarri. Hala ere, Larraitz aldera hurbildu ohi zen igandero-igandero. Hogeita hamaika urterekin ezkondu, eta hogeita hemeretzi urterekin Alegiako Becker enpresan hasi zen lanean eta handik hartu zuen erretiroa, baserriko lanean erretirorik izan ez badu ere.

Joakin Zubeldia Zabala (1923)



Abaltzisketako Garmenditxiki baserrian jaioa, eta hazia. Etxean soroko lana eta ganadua beti ezagutu du, eta baserritik bizi izan da beti, nahiz eta fabrikan ere ibili izan den noizbait. Afrikan soldadu ibilia. [Maria Andresa Gaztañaga Dorronsoro](#)ekin ezkondua.

Cayetana Zuriarrain Irastorza (1929-2019)



Abaltzisketako Naera Barrena baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama Abaltzisketako Sasiain Garate baserrikoa. Zazpi senidetan bosgarrena, hamalau urterekin joan zen Albizturrera lanera, neskame. Bertara ezkondu zen gerora eta Babilonia baserrian bizi izan da geroztik.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Iritziak

1.1. Negu gogorrean ardiak zaintzen

- **Hizlaria(k):** Artola Etxeberria, Ana

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ABL-004/002
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:02:08. **Bukatu**: 00:03:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Artzain ibili behar izan zuen. Gaintzan izaten zituzten ardiak. Bildotsak zaintzen ibiltzen zen. Elurra zenean, arkumeak barruan edukitzen zituzten. Neguak oso gogorrak izaten ziren, orain baino gogorragoak. Jantzi egokirik ez zuten. Orain erregeak bezala bizi garela dio.

Transkripzioa

- Gu're artzai ibili behar izaten gendun.
- Bai, e?
- Beharko!
- Zer zenezkaten ardi asko?
- Ez, uaingo laurdenik ez. Bai, orduako asko izango zan, baiño ez, ez dizut esango zenbat ardi zittun, baiño behiñepein endredoako bazan. Hor Gaintzen izaten giñen ardikin.
- Naparron?
- Ez, hor, hemen dau Gaintze, beste... bai, herri honen paren beste... hor, Gaintze, Ordizi aldea o hortaa, Gaintze.
- Ta noiz juten ziñaten harea?
- Beno, udatzenen juten zien ardikin Santa Maiña, eta eguarrik aldea [atzea] etortzen zien, ardik ume itteko, eta gero hemen ibiltzen zien. Ta gu... bildotsa, bildotsa jakingo dezu zer dan, ttiki... arkumetati hurrena, ta hoik zaintzen-ta ibiltzen giñen gu.
- Zuek ze iten zenuen?
- Haik zaintzen.
- Ta ze in behar izaten zan zaintzeko?
- Haik zaintzeko? Barrutin ibiltzen zian. Zelaien ibiltzen zian, ezta? Eta zelaletio, ba, guk harea ta honea ta, hola ibili. Ta elurre zanen, han barrun eukitzen zien, eta ordun, zea, belar pixkat eman ta. Ta, gaiñentzen, ze esango dizut, ba, nik? Ze... behiñepehin elurre zanen, ardik-eta, gero umek jaiotzen zienen-ta, ai! oso... oo! negu gogorra! Oain, oain ez du urdun bezelako neguik itten. Ordun negu... Beno, halako jantzik eta halako oiñetakok eta... ze uste dezu! Oin? Oin erregea baiño hobeto bizi gea ta! Hala bizi gea!
- Bai, bai, bai.

2. Baserria

2.1. Ardiak nola zaintzen zituzten

- **Hizlaria(k)**: Artola Etxeberria, Ana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ABL-004/003
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:03:55. **Bukatu**: 00:04:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

- **Laburpena:** Neguan ardiak etxera ekartzen zituzten. Eguerdian basora eta arratsaldean belazeetara eramaten zituzten. Lehen ardiak orain baino hobeto zaintzen zituztela uste du.

Transkripzioa

- Ni konforme nao.
- Ta negua etortzen zanian, ordun, ardik ekartzen zian etxe aldea, ta ze eukitzen zenituen barrutin, hola, normalian?
- Bai.
- Atea gabe?
- Ez, ez, ez, oain oiangok dare atea bare. Ordun basoa ataa ta hola eguardi arten bason ibili, ta atsalden belazea pasa. Uain baiño, [artzantza] hobea itten zan ordun. Ni neezako, e.
- Ardik hobeto zainduta.
- Bai.
- Ondo kontu inda.

2.2. Soroko eta baratzeke lanak

- **Hizlaria(k):** Artola Etxeberria, Ana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ABL-004/005
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:05:22. **Bukatu:** 00:06:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserríko bizimodua » Baserríko bizimodua
 Natura » Meteorologia
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Goizean jaiki eta etxeko lanak egin ondoren sorora joaten ziren. Euria etortzen bazan ezin zuten lanik egin. Baratzea ere bazuten, aza, babarruna, baba txikia eta horrelakoekin.

Transkripzioa

- Ze in behar izaten zenduen ordun?
- Itzulen? Jesus! Goizen jeiki, zeozer hartu, eta, beno, seittun ez, gero etxeko lanak. Ttiki-ttikik giñela, ama enbalidoa gendun, eta guk etxeko ohiak ein eta etxen pixkat gauzak txukundu ta. Gero behiyek lotu eta ordun soroa jun ta [arren] ibili, lurra konpontzeko, eta gero, ba, artoa in behar bazan —bai, egualdie nolakoa zan´e—, artoa in behar bazan, oso ondo zeatzen giñun, baiño ebie etortzen bazan, eonen berriz´e, eon in behar! Ahal dan bezela, eon in behar! Ta ze esango dizut nik hortik aurrea?
- Ta baratza-o izaten zenduen?
- Bai, beti, koxkor bat. Ez uain [aiñe] ez, baiño beti, aza... Aa! Oaiñ´e ikeragarri gustatzen zaizkit aza ta babarruna. Gustoa jaten dittut! aAa, babarruna, baba, baba txikie...

2.3. Garai bateko zuhaitzak

- **Hizlaria(k):** Artola Etxeberria, Ana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren

- **Erref:** ABL-004/036
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:20:27. **Bukatu:** 01:22:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Inguruan haritza, gaztaina eta lizarra izaten ziren. Pagoa ere bai. Gaztaina asko bildu izan ditu. Aurten ere asko jan ditu. Sua egiteko ere gaztainaren egurra erabiltzen zuten. Pagoa menditik ekartzen zuten ogia erretzeko. Garai hartan pinurik ez zegoen.

Transkripzioa

-Hemen inguruan ze, ze arbola izaten zian ba bestela? Danetik?

-Hemen ordun zan haitze, uain norteko haitze baiño ordun ez, ordun aitze, gaztaiñe ta lizarra.

-Erreka bazterretan?

-Bai.

-Ta pagoik eta?

-Bai, bai, bai, hua're bai, bai hua're bai, hoitxek, lizarra, pagoa, haitze eta gaztaiñe. Gaztaiñe Jesus... Gaztaiñe emakumea, majiña bat bildu giñin, ta aurten ea, gaztaiñ asko jaten deu alabak eta biyok, semei ez zaio gusteatzen.

-Ez?

-Ez. Gustatu, bi-hiru jateittu, baiño guk, alabak eta biok...

-Bata bestean atzetik.

-Bai!

-Ta garai haitan ze arbola apreziatzen zan, e, adibidez sutako?

-A! Guk gaztaiñik ber, gaztaiñ haundik oso, zea haundik, gaztaiñeri haundie gendun ta, altza ta, altza, altza're ba dakizu /bakizu/ [...] kontau nizun altza ta. Ze esango dizut ba nik, haitze arbol, adar batzuk eta...

-Ez zan izaten e, ba pagua nahiyo sukaldeako ta?

-Bai, menditi ekartzen zan pagua, egurre Jesus... ogie erretzeko, ogie erretzeko pagoa. Bai. Ta gero piñue're bai baiño guk ez gendun geok piñuik, herrikotio, herriko, gero asko zanez sorteo itte zun ta.

-Baiño zuek txikik ziñaztenen hemen inguruan piñuik bazan?

-Ez, nik ez nun ezautu

-Geroa etorri

-Geroa, geroa, buf hoi

2.4. Inguruko iturriak

- **Hizlaria(k):** Artola Etxeberria, Ana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ABL-004/037
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:22:08. **Bukatu:** 01:23:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Inguruan iturri famatua dago, "nikoleta" esaten diotena. Kea botatzen omen du. "Sorrosoondo" esaten zioten beste iturri batetik edateko ura ekartzen zuten. Edateko plazatik ere ura ekartzen zuten.

Transkripzioa

-Ta uaineikan'e mozorro horrekin ta, ene, ni uain ez naiz joten, ez due nahi're ni jutea ta hor, guk auzkalden, itturri oso famatue da hemen.

-A bai? Ze, ze itturri da ba?

-Bai. E?

-Ze iturri?

-Nikoleta esaten diouna.

-Nikoleta?

-Nikoleta esanten dioun itturrie.

-Ta zeatik da ba famatua?

-Zeatik, uain'e ure epela eongo da ez dakit kea ez ote dun botatzen, ke pixkat, bai, bai. Ta geo beste bat'e bagendun gure jatetxetio, urrutixio baiño hue eateko ekartzen gendun, Sorrosoondo esaten zien, esaten giñoken Sorrosoondo, eta handio're bai, baiño hue bai, harek hola negu parten,[...] hola pixka pixkat bota, baiño epela e, han bertan epela baiño etxea etortzeako hoztu itten zan, hoixe. Ni horrea joten naiz, joten nitzen ia bai, sei zazpi hillabeten, ez zuen nahi hok ni jutea, zeati eroi ingo omen nitzen ta ez dakit ze ingo bainitzen, bai nire txarra da egie esan, baiño buelta in det nik hauntza.

-Ur billa?

-Bai. Ur billa ez, buelta bat eman, han ude ean, hauntza jun, ude ean exeita jarri ta gero, ta baztarrai beidatuz gustoa eon, nik ez, nik e hau ekarri zan ezkeoz ez palta balin badet ekartzen det [...] baiño gaiñentzen ez.

-Baiño garai baten bai bueltan ur billa...

-Bai, ene!

-Esan dezun, zea, iturri famoso hortan eatekua hartzen zenuen o eateko beste noabaitea joten ziñaten?

-Plazatik ekarri behar eateko're, urtia're bai [...] ttiki ziela, gustoa joten omen zien, ta horrea joten zien, uda ekartzea, ur freskoa.

2.5. Bizimodua gogorra zen, neguan bereziki

- **Hizlaria(k)**: Artola Etxeberria, Ana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ABL-004/040
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 01:26:26. **Bukatu**: 01:29:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Herrira joan behar izaten zuten ur bila eta arropak garbitzera. Gogorra zen baino egin behar izaten zen. Neguan artoa edo babarruna aletzen egoten ziren. Lehen haize gehiago izaten zen. Sua pizteko beldurrez ibiltzen ziren eta alkohola erabili behar izaten zuten. Umeak eskolara bidaltzen zituenean bazkaria prestatzen zuen.

Transkripzioa

-Herriaiño jun bihar izaten zenuen ur billa?

-Bai, ta erropak jotzea re bai e

-Herria?

-Bai

-Hemen erreka urrutigo geatuko zitzaizuen?

-Ez. Gu uda ekarri zuenen, hemen ez zan ezen paltik e
 -Baiño hoi baiño lehenago ekarri aurretik?
 -Ekarri aurretik deak plaza jun ber!
 -Danak?
 -Danak!
 -Erropa jotzea're plaza?
 -Bai!
 -Ur billa zuentzako plaza?
 -Plaza!
 -Ta ganaduak eateko?
 -Baita're!
 -Plaza?
 -Nik jaiotetxetik ze, gaiñentzen hemen kamio ixkiñen ta ba dakizu /bakizu/ zerbaitte, jaiotetxetio diferentzie, baiño udekin ñios! Gorra huaun e, hue gorra zan e, elurra bazan, bueno egie esan, gizonak asko launtzen zin e, egualdi txarra baldin bazan, harek udek ekarriko zittun etxea, hoi bai, hoi bai. Egurra txikitu ta uda ekarri ta hoi bai. Baiño iñ iñ behar ordea. Ta uain nagu parten aitzen giñen gure harek e bazin haria iteko zea bazun eta, zea itten zun harie in harek'e, ta gero ni galtzerdik itten, harek gero pillan jartzen zittun, eta nik tarteaz nunen, baiño nik behiñik behiñ o artoa aletu, o baburruna aletu negu parten. Umek eskolan, haik etxea etortzeako bai gusto asko patatak eo. Hoi're esan behaizut. Hemen haize ikaragarri izaten zan, uain ez da izaten lehen [...] baiño ikearrizkoa, aspaldi paken gare, torriko da, torriko da, zea ta, hok eskola juten zien, esnea o pixkat epelduta zeakin, zea ogikin al zan bezela, zea, esto...
 -Alaba: Hego haizea zanen?
 -Hego haizea zanen, goatzen al zea?
 -Alaba: Ez, esan itezulako.
 -Bai, esango ez det ba, hola hiru anka txikikin ze bat...
 -Alaba: [...]alkoholakin itten zan
 -Alkoholakin itten zan, han kazo txikin esnea beotu, eta kafesnea o ala eman ta hoi zea, eskola juten zien hok gaixok, eta geo hok etortzen eguardiñ'e haize haundie eta al zan, nik ze esango dizut ba arrautze o zerbait eman berriz'e, eta baiño illuntzeako haizea gelditzen bazun bai azkar asko, zea, porru patatak eo patatak jarri, bai, otorduik in gabe...

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Baserriko eguneroko janariak: babarruna, ardikia, sagarra...

- **Hizlaria(k)**: Artola Etxeberria, Ana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ABL-004/006
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:06:32. **Bukatu**: 00:09:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Lehen ardikia egunero jaten zuten, neguan behintzat. Ardia hil ondoren gatza ematen zioten ontzi batean sartuta. Ontziak zuloak zituen gatza ateratzeko eta egun batzuk ondoren atera eta zintzilika jartzen zuten. Gezatzeko uretan beratzen zuten. Igandetan babarrun zuria jaten zuten eta pozik. Postrerako sagarra. Orduko esnea, gain askorekin. Intxaurrak ere jaten zituzten. Ogia, berriz, gutxi izaten

zuten eta udarako gordetzen zen. Taloak. Denek ontzi beretik jaten zuten.

Transkripzioa

- Gero, gaiñian, ai, hoi ez zait gustatzen: ardikie. Ardikie, ardikie, [zeziña]... ba! ez zait gustatzen.
- Ez? Hua lehen dextetan jaten zenden?
- Bai, egunero.
- Egunero?
- Bai, udaran ez, baiño negu parten, bai! Ta hue babarrunai nahastuta-ta. Nei ez zin gustatzen, ez zitzen gustatzen.
- Ze izaten zan hoi, ardiya...?
- Ardie hil, eta gero egun bat edo bi euki, ta geo gatza eman.
- Nola ematen zitzaion gatza?
- Zea baten, ontzi baten. Eta ontzi harek zun, txulok zittun, hari gesala behera juteko. Gesala behera juten zitzaion hari, ta gero, ba, hortxe, ez dakit, ba, dozena erdi bat —ni ahaztuta nao hoi—, dozena erdi bat egunen eo, han euki ta geo txintxilika jarri. Ta handik puskatu ta beratzen, gauen beratzen euki, ta goizen baburrunei hua sartu.
- Ta ze izaten zan lehorra ta gaziya o ze izaten zan?
- Ez, gezatzen zan.
- Bai, e?
- Bai, bai, bai.
- Uretan.
- Udetan. Gauen beratzen zan. Ez, ez, gozua izaten zan, baiño beti aspertu itten zan. Baiño... Ta jaieten'e ez, jaietan beti babarruna txuria izaten gendun. Bai. Ta hue txoixoak, hola, txoixo muturrek... txintxo kontu inda, e! Guk jaietan babarruna zurie. Hue jaie etortzeko pozik! Baiño ez oain bezela postreik-eta ordun, e? Sagarra balin bazan etxen, sagar bat ta akabo. Gaiñen esnea. Hoi bai, aizu. Pertzaka esnea. Ai! Gogoatzen zat ze gaiñe eukitzen zun.
- Gaiña gustatzen zitzaizuen?
- Gustatu... Beno, gustatu bai itten zan, baiño guk geok hola, ze, ogie gutxi, ordea, ordun'e eta guk gaiñe hola jarri zean gaiñen ta jaten gendun. Baiño hemengo nere, gure umek, eskolatik etorri ta zean jartzen nien, katillu baten, goizen [gaiñekin], eta ogi... bi ogi tarten. Hemen beak esaten due "ene, ze goxoa!", azukrea botata. Indar zerbait in beharra zeon gaxoi, indar itteko. Ta guk, berriz, indarra ez gendun izango, baiño guk esnegaiñe. Ta eskolati etxea jundakon, intxaurrak. Guk intxaur asko izaten gendun, eta aldiko dozena erdi bat eo hola. Baiño ogi gutxi! Ogie udarako gordetzen zan. Ordun...
- A bai?
- Guk bai. Gure etxen behiñipehin hala itten zan, udarako ogie gorde.
- Ta negun talua jan?
- Negun? Eguardin'e taloa, egualdi txarra baldin bazan. Hoi bai, taloa! Eta, aizu, eskolati etxea jun, eta nik ez dakit ze... babarrunan salda kin taloa zuku-zuku-zuku in, ta fuente bateti jartzen zan ordun, e! Ta danak handik jan. Geo babarruna. Eta gu talo ta esne zalek giñen, eta uaindio're jango nukela iruitzen zat, esne hotzakin talo beroa.

3.2. Eskolan burla egiten zieten

- **Hizlaria(k):** Artola Etxeberria, Ana

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ABL-004/007
- **Iraupena**: 0:03:43. **Hasi**: 00:09:56. **Bukatu**: 00:13:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserría vs. Kalea
- **Laburpena**: Eskolara joaten zirenean burla egiten zieten taloa gosaltzen zutelako. Lurrina botatzen zutela esaten zieten eta maistra asko haserretu zen halako batean. Eskola herrian bertan zegoen. Maisua eta maistra zeuden, biak kanpotarrak. Maistra oso ona zela dio, burlak moztu egin zituelako. Burla egiten zuten haiek etxe aberatsetakoak omen ziren. Gurasoek ahal zutena egin zuten garaiko gabezia kontuan hartuta.

Transkripzioa

- Guk jaki beharrik, guk jaten gendun. Korrika eskolaa! Eskolaa etorri, etortzen giñen eskolaa, goizen etortzen giñenen, “Hau den lurriñe —bero-hotza hokin ta—, hau den lurriñe” ta “Hok, hok taloa janda etortzen dittun” ta burla itten ziguen.
- Burla iten zizuen?
- Burla itten ziguen.
- Ze jaten zuen ba bestek?
- Hoi, ba, oain esango dizut. Ta... hil zan gaixoa, nere aldamenekok —gu danak baten etortzen giñen ta— baten esan zion: “Hik ze jaten den? Hik ze jaten den, ba?!” Guk’e taloa ta esnea [ez diñau...]” hola esan zion. Ta eskolaa sartu giñan baten maistrai esan zioen ahoti lurriña botatzen gendula. Kastillanoa gendun maistra. Zeozer entendittu itten gendun. Ta “Ahotik lurriña?” zer zan hori ta “humo” hola. Hori gogun dauket. Eta bi zian behiñipehin. Ene! Majiña bat burla in ziguen! Eta batek entendittu zun, ta eskolako aten sartu, ta baxtarretio aurea jun zan. Ta bestea uaindi Fraisoron, han dao bestea, eta harek. Maistrak, ño, berotu zan maistra ta harek in zizkiun pakek. Guk ze... ze jan behar gendun, ba, guk? Ta akabo, orduntxe pakek in zian, guri gehio ez ziguen burlik in. Abarkak, gu abarka ta galtzerdi, ez holako zapatilla zeakin, abarka ta galtzerdikin-ta etortzen giñen. Ze burlek itten zien...!
- Bai, baiño zuek honea etortzen ziñaten, Abaltzisketa aldea etortzen ziñaten eskolaa? Noa juten ziñaten?
- Bertan, herrin bertan.
- Herria?
- Herrin.
- Zer zan, neskentzako eskola o...?
- Bitako, neskak ta mutillak, erdin paeta besteik ezer ez.
- Eta ze izaten zan, maistra bat danentzako?
- Ez, maixu ta maistra.
- Biyak.
- Bitaa.
- Ta kanpokok zian biyak?
- Bai.
- Tolosa aldekok edo hola ?
- Jakin zazu nungok zien !
- Erdaldunek behintzet.
- Ez, ni ahaztuta nau, baiño ez, onak zien, e ! Baiño guri... Nik maistra hue

errezatu itten diotoain´e, zerun gerta deilla e, zeatio harek in zigun guri mesede ikaragarrie. Ze burlek itten zizkiguela uste dezu !

- Baiño zeñek itten zizuen, ba, burla ?

- Neska hoik, neskak alkarri!

- Baiño zer zian Abaltzisketakok bestiak ?

- Bai!

- Ta beaiek zer zian, ba ? Aberatsan umek o hola?

- Bai, batzuk bai. Bat bai, uain Fraisoron daon hue bai. Hue aberatsa, puu! Hue aberats etxekoa zan hue. Baiño nola, nola itten ziguela usten dezu guri ? bueno!

- Ze, baiño pobrek ziñetelako?

- Gu pobrek, hoixe. Gu gaizki. Nola...? Aizu, beatzi umetatik garai hartan... ze? beno, nik gurasokati ez det ze esanik, e! Ahal zuena in zuen, zeukeneti eman ziguen. Aizu, ontza bat txokolate uain baiño... honako eskue baiño lodigo izango zan ordun, asko xamar esango det /esangot/ baiño, eta hue lau puska in eta ematen ziguen gaixok. Ta ze in behar zuen gehio gaixok? Jaie etorri ta ontza, ontza erdi bat txokolate.

- Ta parre bestek?

- Parra itten ziguen. Ta behiñipehin maistrak. Eta gero guri, nei behiñipehin, oso ondo itten zian maestrak, oso ondo itten zian. Baiño...

4. Politika

4.1. Gerra garaian baserrian lan handia egin zuen

- **Hizlaria(k)**: Artola Etxeberria, Ana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ABL-004/009
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:16:10. **Bukatu**: 00:18:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena**: Gerra etorri zenean, anaiak soldadu joan ziren. Aitak erreuma zuen eta ahizpak eta biek jetzi behar ardiak. Gerra denboran ere lana soberan. Ahizpa segan ere ibili zen. Ama elbarrituta zegoen. Anaia bat etxean gelditu zen lana aurrera ateratzen laguntzeko.

Transkripzioa

- Ai zea... gerra aurreko kontutaz ai zea zu.

- Bai.

- Ta orduako holako zea... liskarrak eta?

- Bai. Bai, bai, gerra aurria [eon] zan. Gero gerra etorri zan. Eta aitte, aitte zana, hola eskuk okertu zitzazkion, zeak, reumak, baiño... baiño... kozkorrak ateata ta. Bi anai soldau eta, zaharrena libratzeko, hirugarrena soldau jun zan. Eaman zuen. Eta, aizu, aittek ardiei lepoti heldu, eta ahizpa —hil zuen gaixoa, nere aurrekoa zan—, Maria izena zuna, eta, harek eta nik ardik jetzi. Guk ze jetziko giñuzen?

- Zer ziñaten txikik ordun?

- Txikik? Bai, nik hamar urte, nik hamar-hamaika urte nittun. Eta hamasei urtekin aitte ta ama hilda geldittu giñen. Pentsa ze pasatakok gean!

- Ta zuek ordun, gerra aurretik, hoixe, baserrin, eskolan ta hola.

- Bai.

- Ta gerra garaian ze kanbio izan zan o zuek nola bizi izan zenduen hoi ?
- Gerra denboan? Ba guk lana in behar ordun'e. Bai. Lehen esan dizutena, artzai ta, etxeako... etxen lan... bueno, uain bezelako ganau taldeik-eta ez, bost behi izaten zien. Eta hairi jana eman ta, hairi arbie ekarri ta, belarra ta [udaran] belarretan ta... Ene! Ni ez nintzen aitzen, baiño nere ahizpa segan aitzen zan belarra ontzeko ebakitzen. Pentsa ! Aittek, aittek ez zun... harek ez zun [gixajok]. Ta ama, berriz, enbalidua gendun.
- Ta anaiak soldadu.
- Anaiak soldadu, ta han zien mixerik. Gero anai gaztea, ni baiño gaztegoa, hue etxen zan, hue etxen eoten zan. Ta, bueno, aittei ta [lagun]. Bai, endredoa zan ordun'e ta! Ez oain [aiñe] ardi pentsuk-eta ematen-ta ordun ez zan, baiño haik zaindu in beharra zeon. Ta gero gazta in behar ta, arkume ta... uf!
- Lana sobran.
- Bai, bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Abaltzisketako Sarobe baserrian jaioa (ABL-002/002)

Abaltzisketako Sarobebehekoa baserrian jaio zen 1930ean eta haurtzaroa bertan pasa zuen 10 urtera arte, gaixo zuen ahizparen zaintzen. Bederatzi anai-arreba zituen. Ama Sarobe bertakoa zen eta aita nafarra, umezurtza.

2. Kaletarrek baserritarrei barre egiten zieten (ABL-002/003)

Abaltzisketako eskolan ikasi zuen 10 urterekin hasita. Asko sufritu zuen kaletarrek barre egiten baitzieten baserritarrei. Izebak Usurbilera eramane zuen bizitzera eta hango eskolan ibili zen gero.

3. Alegian neskame eta Ordizian zerbitzari (ABL-002/004)

Jaunartze handia Usurbilen egin zuen. 14-15 urtera arte bertan bizi izan zen eta ondoren etxera bueltatu eta neskame joan zen Alegiako etxe batera. Diru gutxi irabazten zuela-eta amak etxera bueltatzeko eskatu zion 17 urterekin. Ordua, Olano tabernan hasi zen zerbitzari lanetan.

4. Tabernako giroa (ABL-002/005)

Jende ugari ibiltzen zen tabernan, gizonezkoak bakarrik. Kartetan jokoan aritzen zen jendea eta meriendak egiten zituzten. Jende diruduna biltzen zen egunero eta asteazkenetan azokara hurbiltzen zen jendea. Goizaldeko ordu biak ingurura arte zabalik egoten zen taberna. Blusa beltza eta gona erabili ohi zuten, mantal urdinarekin.

5. Nobiotako kontuak (ABL-002/006)

Senargaiarekin hasi zeneko kontuak kontatzen dituzte senarrak eta biek. 3 urtean ibili ziren elkarrekin eta gero Zaldibiara joan zen anai-arrebak zaintzera. Josten ikasten ibili zen Martinarekin Zaldibian. Senargaia bizikletan joaten zitzaion. Senarraren aitari arropak egiten zizkion.

6. Esnezaleari behi-esnea saltzen zioten (ABL-002/008)

Abaltzisketako baserrian esne-behiak izaten zituzten. Oso bizimodu pobrea zuten. Esnea esnezaleari saltzen zieten. Bi anaia gerrara joanda frontean eta aita gaixo zituen eta inguruko ezagunek asko laguntzen zieten.

7. Ospitalera gurdi edo taxian joaten ziren (ABL-002/009)

Norbait gaixotuz gero taxian edo gurdian joaten ziren ospitalera. Aita hil zenekoa kontatzen du.

8. Arropak garbitzera errekarra (ABL-002/011)

Argia txikia zela ezagutu zuen etxean, kinkan olio egiten zuten. Ez zuten urik, kilometro inguruan joanda zuten iturria. Arropak garbitzera anaiak erreka ondoan jarri zuen lekura joaten ziren. Anekdotak bat kontatzen du.

9. Frontean zeuden anaien gutunak bizilagunek irakurtzen zizkieten (ABL-002/012)

Amak ez zekien irakurtzen eta auzotar batek irakurtzen zizkien frontean zeuden anaien gutunak. Bizimodu zaila pasa zuten eta bizipen haiek azaltzen ditu.

10. Azokara astoz eta postariaren gurdian joaten zen ama (ABL-002/013)

Martinaren ama astoz Zaldibiara eta handik postariaren gurdian joaten zen Ordiziako azokara arrautzak saltzera. Arraina, olio eta beharrezko gauza justuak erosten zituen amak.

11. Txerria hildakoan auzoan banatzeko ohitura (ABL-002/014)

Urtean txerri bat hil eta txorizo eta odolkiak egiten zituen Martinaren amak eta mantentzeko olio eta gatz-kutxetan gordetzen zituzten. Piper-hautsa ematen zioten haragiari eulirik ez gerturatzeko eta kontserbatzeko. Txerria hildakoan auzoko etxeetara odolkiak eramatea ohitura zen eta festa nola egiten zuten azaltzen du.

12. Nafarroatik patataren estraperloan gauez (ABL-002/016)

Baratzeko lanetan aritzen ziren, baina bizitzeko justukoa lortzen zuten. Zaldibiako errota eramaten zuten irina gero ogia egiteko. Gauez estraperloa egiten zen; Nafarroatik patata ekartzen zen, besteak beste.

13. Azokako postuak lurrian jartzen zituzten (ABL-002/018)

Terreno pixka bat bazuten eta fruta-arbolak zituzten. Azokako postuak lurrian jartzen zituzten. Inguruko herrietakoak izaten ziren saltzaileak. Ganadu ugari izaten zen eta kale bakoitzak ganadu izen bat hartzen zuen bertan saltzen zenaren arabera. Behia zezenari botatzera joan eta gertatu zitzaien pasadizoa kontatzen du.

14. Abaltzisketako jaiak eta Larraizko erromeria (ABL-002/019)

Etiket Abaltzisketara edo Zaldibiara antzera tardatzen zuten. Abaltzisketako San Juan jaiak. Larraizko erromeria. Dantza lotua debekatua zenekoa kontatzen du. Erromeria ilunarekin batera amaitzen zen.

15. Josten ikasten Zaldibian (ABL-002/021)

Ezkondur aurretik Zaldibian ibili zen josten ikasten eta bitartean hiru anaiei etxeko lanetan laguntzen zien.

16. Ordiziako baserri eta lantegiak (ABL-002/022)

Ordiziako baserri eta lantegiak izendatzen dituzte. Beasaingo CAF lantegiak kanpotar ugari ekarri zuen Ordiziara eta Beasainera.

17. Karlismo garaiko kontuak (ABL-002/023)

Aitaren karlismo garaiko kontuak kontatzen dituzte.

18. Ordiziako Etxezarreta zinean aita pelikulak jartzen (ABL-002/024)

Ordizian Etxezarreta zinea zegoen, Legorretako paper-fabrikako nagusiak egina. Iñakiren aitak botatzen zituen pelikulak zinean eta Iñaki ordaindu gabe sartzen zen. Martinaren izebak antzerkian parte nola hartu zuen azaltzen du.

19. Lizarrustira estraperlora joandakoa (ABL-002/025)

Patataren estraperloa bizikletan egiten zuten Lizarrustiraino joanda. Aitak estraperloan egindako pasadizoak kontatzen ditu Iñakik.

20. Tiro-soinua Larraitz aldean (ABL-004/010)

Gerra garaian, Larraitz aldera kanoiekin egin zuten tiro eta zulo handi bat egin zuten. Soinu ikaragarriak entzuten zituzten bi edo hiru egunetan. Beste behin, soldaduak pasa zirela eta, beldurrez egon ziren. Zein soldadu ziren ahaztu du, militarrek ziren. San Fermin inguruan gertatu zen hori. Tiroak zirela ere, lanean jarraitu zuten, nahiz eta beldurrez egon.

21. Zapi zuri bat teilatu gainean, karlistak zirela adierazteko (ABL-004/011)

Teilatu gainean, beraien ideologia karlista zela adierazteko, trapu zuria jarri behar zutela esan zieten. Anaia Santanderren hil zuten.

22. Ideia politikoengatik gertatutako tirabirak (ABL-004/012)

Gerra ondoren multak jartzen zituzten eta etxeko janariak entregatu egin behar izaten zituzten. Batzuk arro arro ibiltzen ziren. San Joanetan festak izaten ziren. Herrian bi soinujole zeuden, bat ezkerrekoa eta bestea eskuinekoa. Autobusean ere ez ziren denak berdinak. Maizterrak ziren baserri batekoei gertatutakoa kontatzen du, alderdien arteko tirabiren ondorioz.

23. Errazionamendua nolakoa zen (ABL-004/014)

Errazionamendua nolakoa izaten zen eta zein produktu erabiltzen zituzten kontatzen du. Goserik ez zuten pasa baina miserian ibiltzen ziren dena entregatu behar izaten zen eta. Denak tratu berdina izaten zuten.

24. Taloa nola egiten zuten (ABL-004/015)

Aita eta amak ahal zutena egiten zuten. Gazta egiteko esku hotzak behar ziren. Taloa nola egiten zuten kontatzen digu. Taloa egiteko zein tresna erabiltzen zituzten azaltzen du. Oraindik ere taloa egiten du.

25. Taloak erretzeko modu ezberdinak (ABL-004/016)

Bere aitak ere taloak egiten zituen, gozo gozoak eta meheak. Taloak erretzeko modu ezberdinak erabiltzen zituzten.

26. Etxean ogia nola prestatzen zuten (ABL-004/017)

Ogia egiteko prozesua azaltzen digu. Zakarrak txekorrentzako gordetzen zituzten. Masa bezperatik prestatzen zuten. Astean behin prestatzen zuten, udara partean. Neguan berriz, taloa. Opila egiten zietenean poza handia hartzen zuten.

27. Txerria hildakoan ingurukoei partitzera (ABL-004/018)

Txerria hiltzen zutenean odolkia partitzera etxeetara joan behar izaten zuten. Txanponen bat ematen zien eta eltzeitsuan gordetzen zuten ondoren festetan zerbait erosteko. Eltzeitsua lurrezkoa izaten zen. Txokolate pixka bat ere ematen zieten batzuetan. Txerria hildakoan auzokoei partitzen zitzairen.

28. Txerria nola hiltzen zuten (ABL-004/019)

Hil aurretik txerria artoarekin gizendu egiten zuten. Hil bezperan ez zitzaion janik ematen. Hiltzeko mako bat erabiltzen zuten eta horretarako hiltzailea etortzen zen. Behin txerria hiltzeko izan zituzten arazoak gogoan ditu. Mahaiaren gainean hiltzen zuten eta ondoren zintzilikatu egiten zuten.

29. Odolkiak nola prestatzen zituzten (ABL-004/020)

Txerriaren odola sukaldera eraman eta barrunbeekin eta berdurarekin odolkiak prestatzen zituzten. Eltzean egosi ondoren zintzilika jartzen zituzten.

30. Odolkiak nola lotzen zituzten (ABL-004/021)

Odolkiak nola lotzen zituzten erakusten digu.

31. Aitak ardi ilearekin haria egiten zuen (ABL-004/022)

Aitak ardi ilearekin egindako haria zertarako erabiltzen zuten. Aitak haria nola egiten zuen azaltzen digu. Haria egin aurretik amak ilea xaboia eta urarekin garbitzen zuen.

32. Anaia gaixotu egin zenekoa (ABL-004/023)

Aitak galtzerdiak egiten zituen, oso politak. Anai bat soroan lanean ari zela gaixotu egin zen. Herriko praktikantea etorri zitzairen etxera eta hurrengo egunean abere gainean Amezketara eraman zuten. Bitartean amak ahia prestatu zion arrautza gorringoa nahastuta.

33. Abere gainean, anaia Amezketara eraman zuten (ABL-004/024)

Gomazko abarkak (zatak) jantzita, aita lagundu zuen eta anaia Donostiara eraman zuten, medikuarengana. Bueltan, anaia oinez itzuli zen eta etxean zaindu zuten sendatu bitartean.

34. Aitak galtzerdiak egin zizkion medikuari (ABL-004/025)

Amezketako medikuak praktikanteari zera esan omen zion, gaixoaren galtzerdiak gustatu zitzaizkiola. Aitak galtzerdi pareak egin zion medikuari eta hark duro zilarra eman zion.

35. Puskatutako arropa konpontzen ikasi zuten (ABL-004/029)

Bi pare zapata izaten zituzten, bat elizara joateko eta bestea etxean ibiltzeko. Igandetan arropa berezia janzten zuten. Oraindik ere arropa onak egunero erabiltzeak pena ematen dio. Arropa guztia etxean konpondu egiten zuten. Galtzerdiak asko puskatzen zitzaizkien eta haiek ere konpondu egiten zituzten. Kakorratzean ere ikasi zuten.

36. Etxeko lanak eta arropa garbiketa (ABL-004/030)

Josten ikasi behar izaten zuten. Etxeko lanak egiten ikastea ere garrantzitsua zen. Errekan arropak garbitzeko harri bat izaten zen eta bertan usten zituzten galtzerdiak beratzen.

37. Arropak nola garbitzen zituzten (ABL-004/031)

Atearen ondoan mahai bat jartzen zuten arropak garbitzeko. Xaboia eman eta eskuekin arropak marraskatzen zituzten. Kamisetak lodiak izaten ziren eta lehortzea kostatzen zitzaien. Ur epela botatzen zuten xaboia kentzeko. Horren inguruko esaera zahar bat erakusten digu.

38. Aitak galtzerdiak egiteko erabilitako tresnak (ABL-004/035)

Gauzak jasotzen erakutsi zien. Hori eta dotrina. Aitak galtzerdiak egiteko erabiltzen zituen tresnak erakusten ditu.

39. Jaioberriak bataiatu (ABL-006/005)

Bederatzi senide jaioak ziren familian. Elkarriketa garaian, bi gelditzen ziren, hizlaria eta arreba moja bat. Anaia bat erditze garaian hil zen eta bestea, berriz, pneumoniaz. Bataiatuta zegoen, jaio eta berehala aita bataiatzen zituen-eta. Ondoren berriro Elizan bataiatzen zituzten. Bataioetara gazte jendea parrandara joaten zen. Eliza ondoren etxean ospatzen zuten, ama pontekoak gonbidatuta. Jan, edan eta batzuetan dantza ere egiten omen zuten.

40. Bataioen ospakizunak (ABL-006/006)

Soinu-jotzaile zaharrak izaten ziren festetan. Beste batzuek akordeoia edo danborra jotzen zuten. Bataiora arropa berriekin joaten ziren. Bataiatu behar zuten umea manta handi batekin eramaten zuten. Ama oraindik ohean zela umeak bataiatzen zituzten.

41. Etxean egindako mondejuak (ABL-006/010)

Ardi zaharra jaten zuten eta mondejuak egiten zituzten. Orain fabriketan egiten dituztela esaten du; bere garaian, berriz, etxean, naturalak. Harrapazka jaten zituztela gogoratzen du. Bera txikia zenean, janari printzipalak taloa eta potajea (babarrunak) zirela dio. Amonak egiten zituen taloak. Mutil koskorrek etxe atarian jaten zituzten.

42. Txerria hiltzeko modua (ABL-006/012)

Etxean sei behi zituzten. Txerriak ere bazituzten eta artoarekin edo larreetan ibilita gizentzen zituztela dio. Elurretan ere ibiltzen ziren txerriak etxearen kanpoaldean. San Martinetan, txerria hiltzen zuten egunean, amonak pattarra edaten zuela gogoratzen du. Txerria nola hiltzen zuten poliki azaltzen du. Isuritako odola baldean sartu eta gatzarekin gordetzen zuten odolkiak egiteko. Ondoren txerriaren zatiak banatu eta ilea erretzen zioten. Aldamenekoek festa egiten zuten horrelakoetan, baina beraien etxean ez. Txerriaren zati batzuk familiakoei banatzen zizkieten, txanpon batzuen truke umeak bidaliz. Odolki hoberenak apaizarentzat izaten omen ziren.

43. Abarkak egiteko prozesua (ABL-006/014)

Aitak egindako abarkekin ibiltzen ziren. Abarkak egiteko Tolosako zezenketetan hildako animalien larrua erabiltzen zuten. Buelta guztian soka sartu eta berotu ondoren larrua gogortzen zuten. Soka dendetan erosten zuten. Askotan irristatu egiten omen ziren abarkekin.

44. Mantarrak galtzerdien ordeaz (ABL-006/015)

Galtzerdien ordeaz mantarrak erabiltzen zituztela kontatzen du. Beroak zirela dio. Eguerdian mantarrei buelta ematen zieten berriro bero ibiltzeko. Galtzerdiak etxean egiten zituzten, etxeko hariarekin. Familiako batzuk Tolosan zapata-denda zutela esaten du.

45. Gerra hasiera (ABL-006/019)

Nafarrak, falangea eta erreketek aipatzen ditu. Gerra hasi zen egunean, lagun batekin basoan zebilen harria ateratzen, eta kanoi baten tiroaren soinua entzun zuten. Gaintzatik Abaltzisketara bota zuten kanoikadak Amezketa egin zuen eztanda. Kanoiaren bigarren tiroak soroan zuloa egin zuen; eta, hura entzundakoan, behiak bildu eta etxera bueltatu ziren. Soldaduak Larraitzen egon ziren egun batzuetan, eta gero etxeetara joan ziren mutilen bila. Soldaduak pertsona garbiak zirela uste du.

46. Gerra garaian Tolosan (ABL-006/021)

Gerra hasieran, Abaltzisketan bertan geratu zen eta abuztuan, Ama Birjinaren egunean, Tolosara joan zen. Tolosan, ardoa, neska gazteak eta festan bezala ibili zirela dio. Izaskun mendian abioiak tirokatzen saiatzen ziren, Tolosako aitona zahar batek fusila nola erabiltzen zen erakutsi ondoren. Erreketek egon zen azarora arte. Orduan soldadu izateko instrukzioa egin zuen Lizarran. Gauean, batak besteari galdetzen zioten etxekoen egoeraz jakiteko. Bere ustez, tartean zeuden nagusiak ziren dena dominatzen zutenak.

47. Alde egin ala ez? (ABL-006/022)

Askok Frantziara egin zuten ihes, lagunak tirokatzen zituztela ikusi ondoren. Desagertuta zegoela jakiten bazuten, etxean nahigabe handia hartuko zutela

pentsatu zuen eta, horregatik, alde ez egitea erabaki zuen. Lemoako lagun batek ihes egiteko aukera eskaini zion, lan egiten zuen fabrikako nagusien laguntzaz. Ezetz esan zion. Ondo erabaki zuela pentsatzen du, bizirik atera zelako. Ihes egin nahiko balu, nondik nora joan, lagunak erakutsi zion.

48. Gerrako batailak (ABL-006/024)

Lizarran, soldadu garaian, ardoa egiteko sasoian, kuartelean erdi mozkortuta zeudela, Inuzente egunean, denak altxarazi zituztela kontatzen du, kontrakoek Gasteiz hartu behar zutelako. Gasteiztik gertu, Legution ("Billerle"), zalditeriako kuartelean, moroekin eta nazionalistekin tiroketa izan zen. Bere aldekoak moroekin komunikatuta zeudela dio.

49. Gerrako basakeriak I (ABL-006/025)

Gerra garaian Arabako Legution tiroketaren erdian egon ziren. Batzuk lapurretan ibiltzen zirela dio, Legutioko biltegietan. Mairuek euskaldun bati hanka moztu ziotela kontatzen du. Legution kanoia hiri erdian tiroka ibiltzen zuten; eta sarjentu nazionalistak, aitarenekin egon ondoren, moroak etorri bitartean eutsi omen zuen.

50. Gerrako basakeriak II (ABL-006/026)

Gerran Legution (Araba) zeudela, herriaren sarreran, erreka koskor bat pasatzerakoan, tiroketa izan zen. Orduan ebaki zioten hanka nazionalista bati. Moztutako izterra makalaren puntan jarrita egon omen zen eta ikara sortu zitzaizela dio.

51. Soldaduek pasatako beldurra (ABL-006/027)

Gerran soldadu zeudela, arrosarioa errezatzen zuten tarteka. Batzuek "hemen hilko gaituk" pentsatzen zutela dio. Soldadu asko bertan gelditu ziren enterratuta. Buruzagiek apuntatzen zuten nongoak ziren jakiteko-eta.

52. Gerra amaitu ondoren Almeriako kartzela batean preso bati ilea motzarazi ziotenekoa (ABL-006/030)

Gerra bukatu zela jakin zuten momentua erotzekoa izan zela dio. Hiru guardia zibil hil zituzten herri bateko kartzelara eraman zituzten. Kartzelan emakumeak ere bazirela dio. Neska oso polit bati ilea moztuarazi zioten, bera barberu zegoelako; neska gaixoa marruka hasi zitzaion. Berak ere pena hartu zuen hari ilea moztean.

53. Gerrako berrien zain. Kartak frontetik (ABL-006/032)

Gerra garaian, etxeok gutun bidez jakiten zuten haien berri. Gurasoak beti galdezka ibiltzen ziren. Amezketako bi neskari gutunak idatzi, eta postontzian biak nahastuta bota zituenean gertatutakoa kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com